

**ARATUSTEETAKO
DESFILERAko OINARRIAK.
BILBO 2003.**



1. –**BILBOKO UDALEKO JAI BATZORDEAK 2003ko Aratusteetako Desfilearen** lehiaketarako deialdia egin du.

2. –Desfilea **martxoaren 1ean (zapatua)** izango da. Irteera 18:00etan Kale Nagusian hasi (Gregorio de la Revilla kalearen ertzean) eta Areatzan amaitzeko.

3. –Desfile honetan **otsailaren 18ko (martitzena)** 14:00ak baino lehen izena eman duten talde, konpartsa eta karroza guztiek har dezakete parte. Izena emateko 94.416.97.05 edo 94.416.51.89 telefonora deitu behar dute 09:00etatik 14:00etara artean.

4. –Taldeen ezaugarrien arabera, modalitate bi egongo dira:

-KARROZAK:

-Oholtza duen trakziozko ibilgailu batekin edota trakziozko moduluekin hartuko dute parte. Ibilgailuok Bilboko Udalak utziko dizkie.

-**Gutxienez 25 lagunek** osatutakoak izango dira.

-Trakziozko ibilgailuak ere apainduta egongo dira.

.....-Talderen batek bere ibilgailua eramanez gero, haren dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

-MOZORRO TALDEAK:

-Konpartsetarako edo taldeetarako ez dago gutxienezko pertsonakopururik finkatuta.

5. –**Sari** hauek emango dira:

-Modalitatea: **KARROZAK**.....4.800 €

Zenbateko hori 4 saritan banatuko da; honelaxe hain zuzen:

- 1. saria: 1.800 €
- 2. saria: 1.200 €
- 3. saria: 1.050 €
- 4. saria: 750 €

-Modalitatea: **MOZORRO TALDEAK:** 5.700 €

-**Konpartsak:** 2.850 €



- 1. saria: 900 €
- 2. saria: 750 €
- 3. saria: 600 €
- 4. saria: 450 €
- 5. saria: 150 €

-Taldeak edo koadrilak: 2.850 €

- 1. saria: 900 €
- 2. saria: 750 €
- 3. saria: 600 €
- 4. saria: 450 €
- 5. saria: 150 €

6. –Jai Batzordeak **epaimahaikideak** izendatuko ditu. Epaimahaia Foru Aldundiaren aurrealdean paratuko da eta honako hauek baloratuko ditu:

-Jai-giroa.

-Originaltasuna.

-Eszenaratzea.

-Musikaltasuna.

-Koreografia.

-Mozorroak ezin dira izan aurreko urteetan aurkeztutakoak.

7. –Jai Batzordeak erabakiko du desfileko taldeen **hurrenkera** eta tartean fanfarreak eta animazio-taldeak sartuko ditu.

8. –Saria lortzeko bestelako **baldintzak**:

-Parte hartzen duten talde guztiek ordu-erdi bat lehenago (17:00etan) egon beharko dute irteerako lekuan.

- **Talde eta karroza guztiek dagokien zenbakia eraman beharko dute. Haiak egingo dute zenbakia, DIN – A3 formatuan, euskarri zurrunean eta ikusteko moduan jarriko dute. Telefonoz esango zaie talde guztiei zein den desfilerako dagokien zenbakia.**

-Desfilea Areatzan amaitutakoan (San Nikolas elizaren aurrealdean) karrozek Epaltzaren Alargunaren kaletik jo beharko dute, Udaletxerantz, bidean geratu barik.

-Desfileko karrozen eta taldeen artean ez da egongo 10 metrotik gorako tarterik.



-**Sari-banaketa** zapatuan egingo da desfilea amaitutakoan, Plaza Barrian. Irabaztunak sari-banaketan ez badaude saria jasotzeko eskubidea galduko dute.

-Desfilean parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzea dakar. Jai Batzordeak bere gain hartzen du oinarriok aldatzeko eskubidea.